

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

4908

EBAZPENA, 2019ko irailaren 23koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita nola dagoen osatuta Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez egindako laguntza-deialdian aurreikusitako batzorde ebaluatzailea.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan jasotako laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen. Dekretu horren bidez, enpresarien elkarteei eta erakunde sindikalei, beren jarduera-eremuetako berezko gaiei dago-kenez, giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko emango zaizkien dirulaguntzak arautu ziren.

Lan eta Justiziako sailburuaren 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren seigarren ebazpen-zatiak ezartzen duenez, batzorde ebaluatzaile bat eratuko da Agindu horretan ezarritakoaren babesean aurkeztutako proiektuak aztertu eta ebaluatzeko. Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako hiru teknikariek osatuko dute batzorde hori, titularrak izendatutako hiru teknikariek.

Batzorde horrek Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariari bidaliko dio ebazpen-proposamena, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuaren 12.1 artikulua betez.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2 artikulua ezartzen duenez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da nola dauden osatuta laguntzak emateko proposamena egin behar duten organoak.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Jakinaraztea nola dagoen osatuta enpresaburuen elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako dirulaguntzak emateko batzorde ebaluatzailea. Dirulaguntza horiek giza-baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak egiteko izango dira, beren jarduera eremuetako berezko gaiei dagokenez. Uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan daude aurreikusita laguntza horiek, eta haiek jasotzeko deialdia 2019ko ekainaren 19ko Aginduaren bidez egin da.

Batzordeburua.– Bonifacio Alonso Gómez, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren arduraduna.

Bokala.– María Luisa Martínez de Marigorta Guzmán, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako Lan-Antolamenduko Arlo-arduraduna.

Idazkaria.– Zuriñe Sáez de Olazagoitia Echeazarra, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko teknikaria.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 23a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
MARÍA ELENA PÉREZ BARREDO.